



AGINDUA, ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN GASTRONOMIA EUSKADIKO SARIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

Honako hau xedatzen da Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluko 1. apartatuan: “Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi-eta kontsulta-izapideak egin aurretik”.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduaren bidez, xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea erabaki zen, Gastronomía Euskadiko Sariak arautzeko.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluko 2. apartatua aplikatuz, arau-proiektuaren testu elebiduna eransten da eta, horrez gain, 3. apartatuan (arau-eraginaren azterketari buruzko memoria) eta 5. apartatuan (memoria ekonomiko espezifikoa) ezarritako dokumentuak ere eransten dira.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa betez, lehen proiektuaren zirriborroa bidali zitzaion EMAKUNDERi, baita generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen memoria ere.

EBAZTEN DUT:

LEHENA: Gastronomía Euskadiko Sariak arautzen dituen dekretu-proiektua onartzea.

BIGARRENA: Ezarritako prozedurarekin jarraitzea xedatzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, 2024ko urtarrilaren 10eko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz,

AMAIA BARREDO MARTÍN,
ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILBURUA

/2025 DEKRETU PROIEKTUA, ren (e)koa, Euskadi Gastronomia Sariak arautzen dituen.

Euskadi Gastronomia Sariak Kulturako sailburuaren 1992ko abenduaren 23ko Aginduaren bidez arautu ziren, zeinaren bidez Euskadi Gastronomia Sariak sortu baitziren. Dena den, saria indarrean egon den 30 urte baino gehiagoan, euskal gastronomiak bilakaera nabarmena izan du. Horren ondorioz, euskal gastronomiak nazioarteko errekonozimendua eta proiektzio-maila lortu ditu. Hori dela eta, sari horiek emateko baldintzak berrikustea komeni da. Bestalde, elikakatearen kontzeptuaren bilakaera eta gastronomiarekin duen etengabeko harremana direla medio, egoki da Euskadi Gastronomia Sarien gaineko eskumena eta elikakatearen gainekoa eremu funtzional berak izatea.

Hala, arau honen helburuetako bat da Euskadi Gastronomia Sariak emateko eskumen-antolaketa egokia egituratzea. Sari horiek sektorearen egungo egoerarekin eta proiektzioarekin lotuta daude, eta sukaldaritzaren panorama orokorraren eraldaketaren adierazle dira; hots, gure gastronomiak mundura egokitzeko, itxuraldatzeko eta harritzeko duen gaitasunaren isla. Horretarako, asmo hori dela-eta, sari horiek emateari buruzko aurreko araudia osatu eta eguneratu behar da.

Funtsean, hau egin behar da: sail sustatzailea aldatu eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari esleitu, eskumen-sistematika hobeari jarraikiz; sari kategoriak berrorientatu, euskal gastronomiako eragileengan arreta gehiago jarrita; eta horien proiektzioan eta ezagutzan sakondu. Izan ere, sail horri esleitutako eskumenen artean dago elikagaien balio-katea egituratu eta sustatzearena, ekoizpen primariotik hasi eta gastronomiaraino, beste batzuekin lotuta, hala nola sustapena eta nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako industriak, mahastizaintzako antolamendua eta araubidea, nekazaritzako eta arrantzako produktuen kalitatearen eta bermearen sustapena eta defentsa, ehizaren arloko araudiaren garapena eta koordinazioa, arrantzaren antolaketa edo nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako produktuen merkaturatzea.

Gastronomiari buruzko politikak kulturaren arlotik elikakatearen gaineko ikuspegi globalarekin lotutakoetara igartzeko arrazoia da nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreko politika publikoek bilakaera nabarmena izan dutela, eta, aski adierazgarriena dena, gastronomia funtsezko mailatzat hartzen dute. Paradigma-aldaketa bat gertatu da, eta balio-kate osoa kontuan hartzen da orain, ekoizpen primariotik hasi eta azken kontsumitzailearaino.

Gizarteak aurrera egin ahala, janaria areago bihurtu da identitate- eta plazer-adierazpen, eta politika publikoek gastronomia plangintza estrategikoan integratzeko beharra ikusi dute. Horren ondorioz, nekazaritza-ekoizpenaren dibertsifikazioa babesten duten neurriak ezarri dira, eta, hala, kalitatezko osagaiak eta tokiko barietateak sartzeko sustatu da, benetakotasuna eta sukaldaritzako tradizioa nabarmentzeko.

Ekoizleen, prozesatzaileen eta sukaldarien arteko lankidetzak funtsezko bihurtu da paradigma berri honetan. Eragile horiek balio-katean duten lotura estuaren mende dago elikagai berritzaileak eta kalitate handikoak sortzea. Politika publikoek prestakuntza gastronomikoa, tokiko sukaldaritzaren sustapena eta parerik gabeko osagaien baliozkotzea sustatu dituzte, eta, horrela, ekoizpen primarioaren eta amaierako sukaldaritza-esperientziaren arteko harremana sendotzen lagundu dute.

Aldaketa horrek, prozesuaren fase guztietan efizientzia eta kalitatea hobetu ez ezik, sukaldaritzako esperientzia aberastea, jasangarritasuna sustatzea eta tokiko

gastronomiaren nazioarteko presentzia sustatzea ere bilatzen du. Hori dela eta, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila izendatu da euskal gastronomiaren garapena babesteko eta hari laguntzeko politikak bultzatzeko lidergoa har dezan.

Arau honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129.1 artikuluan agindutako erregulazio onaren printzipioak. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, araua euskal gastronomiaren garapenari laguntzeko politiken interes orokorrak justifikatzen du. Proportzionaltasun-printzipioa betetzen da, lehen aipatutako premiari erantzuteko beharrezkoa den erregulazioa jasotzen duelako. Arau honek segurtasun juridikoaren printzipioa indartzen laguntzen du, eta, beraz, printzipio hori betetzen du, arlo horretako araudiarekin koherentea delako. Gardentasun-printzipioa betetzen da, arauaren hartzaileei parte hartzeko aukera eman zaielako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideen bidez. Azkenik, efikazia-printzipioa betetzen da proiektu honek ez duelako administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik ezartzen.

Dekretu hau prestatzeko aholkuak eskatu zaizkie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta sektorea ordezkatzeko antolakunde eta elkarte profesionali. Gainera, arauaren eraginpean egon litekeen pertsona kopurua kontuan hartuta, testua jendaurrean jarri da Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariaren 2025eko ... (e)ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horren bidez, jendaurrean jarri da Euskal Autonomia Erkidegoko Euskadi Gastronomia Sariak definitu eta arautzeko dekretu-proiektua (EHAA, ... zk.).

Horretaz gain, arau hau bat dator Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatzen diren arau-kalitatearen printzipioekin.

Ondorioz, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2025eko ... ren (e)ko bilkuran aldeztu aurretik aztertu eta onartu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da Euskadi Gastronomia Sariak arautzea, elikakatearen gaineko ikuspegi orokor baten arabera. Integrazio-prozesu horretan gastronomia sartzeko da, funtsezko faktore gisa, zeina sortu baita elikaduraren balio-kateko eragile guztien arteko lotura estutik. Horrek argi eta garbi erakusten du gure gizarteak zer-nolako gaitasuna duen, lege zaharrak eta berrikuntza ezkondu, bere gastronomia egokitzeko, berrasmatzeko eta mundua harritzeko.

2.– Arauaren helburua da sari bat ematea gastronomiaren arloan ibilbide nabarmena egin dutenei, banaka nahiz taldeka, eta, horren bidez, egindako lana aitortzea.

2. artikulua.– Sarien maiztasuna eta oinarriak.

Sariak bi urtean behin emango dira, deialdi-agindu bakoitzeko oinarri espezifikoaren arabera. Oinarri horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea.

Indargabetu egin da Kulturako sailburuaren 1992ko abenduaren 23ko Agindua, Euskadi Gastronomia Sariak arautzen dituen.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko aren (e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAIA BARREDO MARTÍN.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE DESARROLLO ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA, POR LA QUE SE REGULAN LOS PREMIOS EUSKADI DE GASTRONOMÍA.

El apartado 1 del artículo 15 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que “una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de inicio”.

Mediante Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de 10 de enero de 2024, se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de regular los premios Euskadi de Gastronomía.

En aplicación del párrafo 2 del artículo 15 de la Ley 6/2022 de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, además de adjuntar el texto bilingüe del proyecto de norma, se adjuntan los documentos previstos en su párrafo 3, memoria de impacto normativo, y en su párrafo 5 memoria económica específica.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 14, apartado 4 de la precitada Ley 6/2022, de 30 de junio, se ha remitido a EMAKUNDE, el borrador del primer proyecto junto con la memoria de ausencia de relevancia desde el punto de vista del género,

RESUELVO

PRIMERO: Aprobar el proyecto de decreto por el que se regulan los premios Euskadi de Gastronomía, que figura como anexo a la presente orden.

SEGUNDO: Disponer la continuación del procedimiento establecido, ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, todo ello de conformidad con lo recogido en la Orden de inicio de 10 de enero 2024 y, en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En Vitoria-Gasteiz,

AMAIA BARREDO MARTÍN,
CONSEJERA DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

Proyecto de DECRETO /2025, de de , por el que se regulan los Premios Euskadi de Gastronomía.

Los Premios Euskadi de Gastronomía fueron regulados por Orden de 23 de diciembre de 1992, del Consejero de Cultura por la que se instituyen los premios Euskadi de Gastronomía. Sin embargo, en sus más de 30 años de vigencia, el mundo de la gastronomía vasca ha sufrido una relevante evolución. Como consecuencia de esta, la gastronomía vasca ha alcanzado un reconocimiento y un nivel de proyección internacional que aconseja la revisión de los términos en que se otorgan dichos premios.

Por otra parte, la evolución de la concepción de la cadena alimentaria y su permanente relación con la gastronomía hace que resulte adecuado que la competencia de los Premios Euskadi de Gastronomía se residence en la misma área funcional que la cadena alimentaria.

Por otra parte, entre los objetivos de esta norma están los de articular de una forma competencialmente adecuada el otorgamiento de los Premios Euskadi de Gastronomía, relacionados con la situación actual del sector y su proyección, como testigos de la transformación del panorama culinario general y que reflejan la capacidad de nuestra gastronomía para adaptarse, reinventarse y sorprender al mundo. Ello requiere, dada esta vocación, completar y actualizar la normativa anterior sobre el otorgamiento de los citados premios.

Se trata, fundamentalmente, de modificar el departamento promotor, pasando a ser el Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por resultar de mejor sistemática competencial, reorientar las categorías de las entidades premiadas, centrándose más en los agentes de la gastronomía vasca y ahondar en su proyección y conocimiento. De hecho entre las competencias atribuidas a este Departamento, se le atribuye la de la estructuración y fomento de la cadena de valor alimentaria desde la producción primaria hasta la gastronomía, en relación con otras como la promoción y las industrias agrarias, pesqueras y alimentarias, la ordenación y régimen vitícola, la promoción y defensa de la calidad y garantía de los productos agro pesqueros, el desarrollo y coordinación normativa en materia de caza, la ordenación de la pesca o la comercialización de productos agrarios, pesqueros y alimentarios.

Tal transición de las políticas sobre gastronomía del área de cultura a las relacionadas con la visión global de la cadena de alimentación se debe a que las políticas públicas en el sector de la agricultura y ganadería han experimentado una evolución notable, y de manera significativa, incorporan a la gastronomía como un eslabón esencial, habiéndose producido un cambio paradigmático hacia un enfoque que considera toda la cadena de valor, desde la producción primaria hasta las personas consumidoras.

A medida que la sociedad ha avanzado hacia una apreciación más profunda de la comida como una expresión de identidad y placer, las políticas públicas han reconocido la necesidad de integrar la gastronomía en la planificación estratégica. Esto ha llevado a la implementación de medidas que respaldan la diversificación de la producción agrícola, fomentando la inclusión de ingredientes de calidad y variedades locales que resalten la autenticidad y la tradición culinaria.

La colaboración entre las personas que se ocupan de la producción, procesado y elaboración culinaria se ha vuelto esencial en este nuevo paradigma. La creación de productos alimentarios innovadores y de alta calidad depende de la estrecha conexión entre estos actores a lo largo de la cadena de valor. Las políticas públicas han fomentado la formación gastronómica, la promoción de la cocina local y la valorización de ingredientes únicos, contribuyendo así a fortalecer la relación entre la producción

primaria y la experiencia culinaria final.

Este cambio no solo busca mejorar la eficiencia y la calidad en todas las fases del proceso, sino también enriquecer la experiencia culinaria, promover la sostenibilidad y potenciar la presencia internacional de la gastronomía local. De ahí que se señale a este Departamento de Alimentación, Desarrollo rural, Agricultura y Pesca para liderar el impulso de políticas de apoyo y acompañamiento al desarrollo gastronómico vasco.

Esta norma se adecua a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas. Así, sobre los principios de necesidad y eficacia, la norma está justificada por la razón de interés general de políticas de apoyo al desarrollo gastronómico vasco. La adecuación al principio de proporcionalidad se cumple dado que contiene la regulación imprescindible para atender la necesidad citada. La adecuación al principio de seguridad jurídica resulta si se considera que la norma contribuye a reforzar dicho principio pues es coherente con la normativa existente en la materia. Sobre el principio de transparencia se cumple por la participación dada a los destinatarios de la norma a través del trámite de audiencia e información pública. Finalmente, la adecuación al principio de eficacia se deriva del hecho de que este proyecto no impone cargas administrativas innecesarias o accesorias.

Las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones profesionales y asociaciones sectoriales han sido consultadas en la elaboración del presente decreto. Además, dado el número de potenciales afectados por la norma se ha sometido el texto a información pública mediante Resolución de de 2025, de la Directora de Calidad y Promoción Alimentaria, por la que se somete a trámite de información pública el proyecto de decreto de definición y regulación de los Premios de Euskadi de Gastronomía en la Comunidad Autónoma del País, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco nº ...de

Además, esta norma se adecua a los principios de calidad normativa dispuestos en el artículo 4 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día de de 2025,

DISPONGO:

Artículo 1. Objeto y finalidad.

1.– Este decreto tiene por objeto regular los Premios Euskadi de Gastronomía de acuerdo con una visión global de la cadena de alimentación, introduciendo en este proceso de integración como factor clave, a la gastronomía, surgida de la estrecha conexión entre todos los actores de la cadena de valor alimentaria fiel reflejo de la capacidad de nuestra sociedad para adaptar su gastronomía, reinventarse y sorprender al mundo, combinando siempre la tradición con la innovación.

2.– La finalidad de la norma es el reconocimiento mediante la entrega de un premio a trayectorias destacadas, a título individual o colectivo, en el ámbito gastronómico.

Artículo 2. – Periodicidad y bases de otorgamiento.

Los premios tendrán una periodicidad bianual y se otorgarán de acuerdo con las bases específicas en cada una de las órdenes de convocatoria, que se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA. – Derogación normativa.

Queda derogada la Orden de 23 de diciembre de 1992, del Consejero de Cultura, por la que se regulan los premios Euskadi de gastronomía.

DISPOSICIÓN FINAL. – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a de de 2025.

El Lehendakari,
IMANOL PRADALES.

La Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.
AMAIA BARREDO MARTÍN.